

## Orkestra Working Paper Series in Territorial Competitiveness

*Orkestra Working Paper Series in Territorial Competitiveness* bilduma lurralde lehiakortasunari buruzko eragin handiko nazioarteko ikerketa zabaltzeko bitarteko bat da, bereziki eskualdeak azpimarratzen dituena. Bildumak ikerketa kontzeptuala eta aplikatua argitaratzen du, Orkestraren jakintza aditua osatzen duten gaietan: Politiken analisia eta ebaluazioa; Klusterrak eta balio kate globalak; Lurralde garapena eta ikerketa-ekintza; Energia, industria eta enplegua; Enpresa berrikuntza eta ekintzaitza; Nazioartekotzea; Energia merkatuak; Gizarte eta ekonomia aurrerapen jasangarria; eta Berrikuntza sistemak. Ikerlanen zabalkunde goiztiarrerako tresna bat da eta, horrenbestez, biltzar akademikoetan, aldizkari zientifiko espezializatuetan edo liburu akademikoetan aurkezteko moduko lanak argitaratzen ditu.

Bildumak Argitalpen Batzorde bat du, argitaratutako lanen kalitate akademikoa eta arestian aipatutako esparruetan izan dezakeen garrantzia bermatzeko. Bildumaren ardura argitalpenen koordinatzaileak du.

### Argitalpen Batzordea

Henar Alcalde dk. (Deustuko Unibertsitatea)	Macarena Larrea dk. (Orkestra)
Patricia Canto dk. (Orkestra)	Edurne Magro dk. (Orkestra)
Miren Estensoro dk. (Orkestra)	Igone Porto dk. (Deustuko Unibertsitatea)

### Argitalpenen koordinatzailea

[Patricia Canto dk. \(Orkestra\)](#)

### Egileentzako arauak

1. **Hizkuntza.** Lanak gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez aurkez daitezke.
2. **Luzera.** Gehienez 8.000 -10.000 hitz, erreferentziak ere barne hartuta.
3. **Formatua.** Lanak Word formatuan egin behar dira, Arial letra motan, 12 tamainakoan; lerroartea 1,5ekoa, lerrokaden artean itzulera bat eta Wordek lehenesten dituen marjinak (3 cm ezkerrean eta eskuinean; 2,5 cm goian eta behean).
4. **Orri zenbakiak.** Orrialde guztiek, oharren eta irudien orriek barne, zenbakia eramango dute, behean eta eskuinean. Azalak ez du zenbakirik izango.
5. **Atalak.** Atalak horrela antolatuko dira: 1. (Letra larria eta lodia), 1.1. (Izenburua – lodia), 1.1.1. (Izenburua), 1.1.1.1. (Izenburua - etzana).
6. **Taulak, grafikoak eta irudiak.** Dokumentuan, dagokien tokian jarriko dira. Zenbakia eramango dute.
7. **Oin oharrak.** Orriaren beheko aldean jarriko dira, eta ez dokumentuaren amaieran.
8. **Erreferentziak.** Erreferentziek [APA](#) formatua izango dute (aipuak dokumentuan eta erreferentzien zerrenda amaieran).
9. **Laburpena.** Lanak laburpen bat izango du, gehienez ere 200 hitzekoa.

10. **Azala.** Ondoko informazioa eman beharko du: izenburua; egilearen edo egileen izen osoa – adierazi zein den harremanetarako pertsona–; lanbide filiazioa; helbide elektronikoa; gehienez ere sei hitz gako; gehienez ere JEL-Journal of Economic Literature sailkapeneko sei kode.

**Bilduma honetan argitaratzeko interesa duten pertsonak lana, aipatutako formatuan, argitalpenen koordinatzaileari bidali behar diote: [pcanto@orkestra.deusto.es](mailto:pcanto@orkestra.deusto.es)**